

Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

937

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 11koa, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearena; 2009ko ekitaldirako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzen deialdiaren berri ematen duena, funtsezko ikerketarako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako Eragile Zientifiko-Teknologikoentzako. Saiotek programa.

2008ko urriaren 2ko Aginduak, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarenak, funtsezko ikerketarako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako Eragile Zientifiko-Teknologikoentzako Laguntzen Programa arautzen du, Saiotek programa (2008ko urriaren 16ko EHAA), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako Eragile Zientifiko-Teknologikoen ekonomikoa ez den jardueraren finantzatzea xede duena.

Laguntza horiek emateko ekonomia-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan ezarritako aurrekontu-partidetatik aterako dira 2009rako.

Agindu horren 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bidezko da bertan finkaturiko laguntzetarako 2009ko ekitaldirako deialdia egitea eta horretarako eman behar diren arauak ematea.

Horrenbestez, agindu horren 10.2 artikuluan ezarritako eskumena erabilita, honako hau:

EBATZI DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Ebazpen honen helburua honako hau da: funtsezko ikerketarako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean (Saiotek programa) integratutako Eragile Zientifiko-Teknologikoentzako laguntza-programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko urriaren 2ko Aginduan aurreikusitako 2009ko ekitaldirako laguntzen deialdia egitea.

Xede horretarako, 15.600.000,00 euro erabiliko dira guztira, honela banatuak: 6.927.250,00 euro 2009an eta 8.672.750,00 euro, berriz, 2010ean, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horri dagokionez ezarritako aurrekontu-kredituaren arabera.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

937

RESOLUCIÓN de 11 de febrero de 2009, del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial, por la que se hace pública la convocatoria, para el ejercicio 2009, de concesión de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo a los Agentes Científico-Tecnológicos integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación para la investigación fundamental. Programa Saiotek.

La Orden de 2 de octubre de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, regula el Programa de Ayudas a los Agentes Científico-Tecnológicos integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación para la investigación fundamental. Programa Saiotek (BOPV de 16 de octubre de 2008), que tiene por objeto la financiación de los Planes de Actuación de la actividad no económica de los Agentes Científico-Tecnológicos integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el presente ejercicio 2009.

De conformidad a lo establecido en el artículo 10 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 10.2 de la orden de referencia

RESUELVO:

Artículo 1.— Objeto.

Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria para el ejercicio 2009 de las ayudas previstas en la Orden de 2 de octubre de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas a los Agentes Científico-Tecnológicos integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación para la investigación fundamental. Programa Saiotek.

Para este fin se destinará un total de 15.600.000,00 de euros, desglosados de la siguiente manera: 6.927.250,00 euros para 2009 y 8.672.750,00 euros para 2010, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Programaren agindu arautzailearen 2. artikulua arabera, zenbateko hori aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza-programa batzuk burutu ondoren agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera, eta betiere laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen. Kasu horretan, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordeak ebazpena emango du aurreko guztia berri emateko.

2. artikulua.– Betekizunak.

Eskatzaileek, Funtsezko ikerketarako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean (Saiotek programa) integratutako Eragile Zientifiko-Teknologiakoentzako laguntza-programa arautzen duen aginduan aurreikusitako laguntzak jasotzeko, erakunde onuradunen kategoría izan beharko dute, aipatutako aginduaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. artikulua.– Eskaerak eta epeak.

1.– Eskaera-orria Interneteko www.euskadi.net/industria helbidean jaitsi ahal izango da.

2.– Eskaerak eta gainerako dokumentazio osagarria honako tokietan aurkeztu beharko dira: Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Lurralde Historiko bakoitzean duen Lurralde Bulegoan edo Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak zehaztutako tokietan.

3.– Eskaerak aurkezteko epea ebazpen hau argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2009ko apirilaren 30ean amaituko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean ekarriko ditu ondorioak agindu honek.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 11.

Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordea,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

De acuerdo con el artículo 2 de la Orden reguladora del programa, este importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. En tal caso se dará publicidad mediante la correspondiente resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial.

Artículo 2.– Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden que regula el Programa de Ayudas a los Agentes Científico-Tecnológicos integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación para la investigación fundamental. Programa SAIOTEK, deberán ostentar la condición de entidad beneficiaria, de conformidad con lo establecido en el artículo 5 de dicha Orden.

Artículo 3.– Solicitudes y plazos.

1.– Un modelo de solicitud podrá descargarse en la dirección de Internet www.euskadi.net/industria.

2.– Las solicitudes y demás documentación complementaria deberán presentarse en las correspondientes Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo de cada Territorio Histórico, o en los lugares especificados por la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución y finalizará el 30 de abril de 2009.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Resolución surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de febrero de 2009.

El Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.